



ONLINE GESTIOEN AKTIBAZIO KANPAINAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) - Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500 - duenak, GIFT4YOUko (<http://laboralk.gift4you.es>) 20 euroko 100 txeke zozkatuko ditu, sustapen baten barruan.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere 2018ko apirilaren 26tik ekainaren 30ra bitartean Online Bankan sinadura behar duen eragiketa bat egiten badute. Sinaduradun eragiketa bakoitzeko partaidetza bat lortuko dute (10 eragiketa gehienez). Zozketatik kanpo geratuko dira zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak, baita, LABORAL Kutxaren iritziz, sustapen honetan iruzurrez jokatzeko dutenak ere.

Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoak. Horrela ez bada, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkari emango zaio.

4.- Zozketa

Zozketa ekainaren 12an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Gainera, zozketan ordezeko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroaren datuak erabiliz saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa-dataren hurrengo 10 egun baliouduneko epean, saria ordezekoentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Saria bitarteko elektronikoen bidez emango da. Hori dela eta, irabazleak helbide elektronikoko bat eman beharko du, saria jasotzeko. Saria GIFT4YOUn trukatzeko 20 euroko opari-txeke bat izango da 100 saridunetako bakoitzarentzat.



ONLINE GESTIOEN AKTIBAZIO KANPAINAREN OINARRIAK

6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta dagozkion zergak ordaindu beharko dira. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok <https://www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak> orrialdean kontsulta daitezke.